**7. ORDENANTZA FISKALA UDAL-JABARI PUBLIKOA OKUPATZEAGATIKO TASEN ERREGULATZAILEA**

**I- XEDAPEN OROKORRAK**

**1. artikulua.-**

Entitate lokal honek, Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauari jarraiki, Eranskinean zehazten diren tasak ezarri eta exijitzen ditu udal jabari publikoaren erabilera pribatiboagatik edo probetxamendu bereziagatik. Ordenantza honetan adierazten diren arauen arabera ezarri eta exijitzen dira tasa horiek, eta haren barruan geratzen dira jasota.

**2. artikulua.-**

Ordenantza hau entitate lokalaren lurralde eremu osoan aplikatuko da.

**II- ZERGAGAIA**

**3. artikulua.-**

Udal jabari publikoaren erabilera pribatiboak edo haren probetxamendu bereziak eratzen du zergagaia.

**III- SUBJEKTU PASIBOA**

**4. artikulua.-**

1.- Honako hauek izango dira, zergadun bezala, subjektu pasiboak: pertsona fisikoak zein juridikoak, eta Gipuzkoako Zergen Foru Arau Orokorrak 35. artikuluan aipatzen dituen entitateak, baldin eta beren onura partikularrerako gozatu, erabili edo aprobetxatzen badute modu berezian udal jabari publikoa, uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauak, Gipuzkoako Toki Ogasunei

**ORDENANZA Nº7 REGULADORA DE LAS TASAS POR OCUPACIÓN DEL DOMINIO PÚBLICO MUNICIPAL**

**I-.DISPOSICIONES GENERALES**

**Artículo 1.-**

Esta Entidad Local, de acuerdo con lo previsto en la Norma Foral reguladora de las Haciendas Locales de Gipuzkoa, establece y exige tasas por la utilización privativa o el aprovechamiento especial del dominio público local especificados en el Anexo, y según las normas contenidas en esta Ordenanza, de las que aquéllas son parte integrante.

**Artículo 2.-**

La Ordenanza se aplica en todo el ámbito territorial de la Entidad Local.

**II- HECHO IMPONIBLE**

**Artículo 3.-**

Constituye el hecho imponible la utilización privativa o el aprovechamiento especial del dominio público local.

**III- SUJETO PASIVO**

**Artículo 4.-**

1.- Son sujetos pasivos, en concepto de contribuyentes, las personas físicas y jurídicas y las entidades a que se refiere el artículo 35 de la Norma Foral General Tributaria del Territorio Histórico de Gipuzkoa, que disfruten, utilicen o aprovechen especialmente el dominio público local en beneficio particular, conforme a alguno de los supuestos previstos en el artículo 20.2 de la Norma Foral 11/1989, de 5 de julio, reguladora de las

buruzkoak, 20.2 artikuluan jasotzen dituen kasuen arabera.

2.- Espaloietan egokitutako ibilgailu sarrerak modu pribatiboan erabiltzeagatik edo haien probetxamendu bereziagatik ezartzen diren tasetan eta, oro bat, sarrera horiek eraiki, mantendu, aldatu edo kentzekoetan, zergadunaren ordezkotzat hartuko dira ibilgailuen sarrera horiei sarbidea ematen dieten finka eta lokalen jabeak. Horiek, hala dagokienean, onuradun desberdinei jasanarazi ahal izango dizkiete kuotak.

3.- Estatua, autonomia elkarteak eta entitate lokalak ez daude behartuta tasak ordaintzera herri jabariaren erabilera pribatibo edo probetxamendu bereziarengatik, zuzenean ustiatzen dituzten komunikazio zerbitzu publikoen probetxamenduetan eta, bereziki, herritarren segurtasunarekin edo defentsa nazionalarekin zer ikusia duten guztietan.

## IV- SALBUESPENAK, MURRIZPENAK ETA HOBARIAK

**5. artikulua.-**

1. - Tasa hau pagatzetik salbuetsiak daude irabazi-asmorik gabeko elkarte eta erakunde herriaren intereseko deklaratuak.

2. - Bestelako salbuespenak edo onura fiskalak Eranskinean edo aplikatzeko xedapen orokorretan ezarritakoaren arabera eraukiko dira.

## V- OINARRI EZARGARRIA

**6. artikulua.-**

Oinarri ezargarria udal jabari publikoaren erabilera pribatiboa edo probetxamendu

Haciendas Locales de Gipuzkoa.

2.- En las tasas establecidas por la utilización privativa o el aprovechamiento especial por entradas de vehículos o carruajes a través de las aceras y por su construcción, mantenimiento, modificación o supresión, tendrán la consideración de sustitut@s del contribuyente, l@s propietarios de las fincas y locales a que den acceso dichas entradas de vehículos, quienes podrán repercutir, en su caso, las cuotas sobre l@s respectiv@s beneficiari@s.

3.- El Estado, las Comunidades Autónomas y las Entidades Locales no estarán obligados al pago de las tasas por utilización privativa o aprovechamiento especial del dominio público por los aprovechamientos inherentes a los servicios públicos de comunicaciones que exploten directamente y por todos los que inmediatamente interesen a la seguridad ciudadana o a la defensa nacional.

## IV- EXENCIONES, REDUCCIONES Y BONIFICACIONES

**Artículo 5.-**

1. - Están exentas del pago de estas tasas las asociaciones y entidades sin ánimo de lucro que sean declaradas de interés municipal.

2. - La concesión de otras exenciones o beneficios fiscales se sujetará a lo que se establezca en el Anexo y en las disposiciones generales de aplicación.

## V- BASE IMPONIBLE

**Artículo 6.-**

Constituye la base imponible cada una de

berezia gauzatzen den unitate bakoitzak osatzen du, Eranskinean jasotakoaren arabera.

las unidades en que se materialice la utilización privativa o el aprovechamiento especial del dominio público local, en los términos contenidos en el Anexo.

## VI- KUOTA

**7. artikulua.-**

1.- Zerga kuota tarifa bat, espreski erabakitako kopuru finko bat edo, bestela, bi prozedurak batera erabiliz finkatuko da, Eranskinean ezarritakoaren arabera.

2.- Ondorio hauetarako, kaleak eta, orohar, Udalaren lekuak Eranskinean ere adierazitako era berean ilkatzen dira.

3.- Erabilera pribatibo edo probetxamendu bereziak udal jabari publikoa suntsitu edo hondatzen duenean, onuradunak, behar den tasari aurre egiteaz gainera, osorik itzuli beharko ditu berreraikuntza edo konponketa gastuen kostuak, eta haren zenbatekoa aldez aurretik ordaindu.

Kalteak konponezinak badira, udalak kalteordain bat jasoko du. Suntsitutako ondasunen pareko balioa izango du, edo bestela, kaltetutako ondasunen zenbatekoarena.

Entitate Lokalak ezingo ditu barkatu, ez osorik ez zati batean, apartatu honetan aipatzen diren kalteordainak edo diru-itzulketak.

## VI- CUOTA

**Artículo 7.-**

1.- La cuota tributaria consistirá, conforme a lo establecido en el Anexo, en la cantidad resultante de aplicar una tarifa, una cantidad fija señalada al efecto, o la cantidad resultante de la aplicación conjunta de ambos procedimientos.

2.- A estos efectos, las calles y, en general, lugares del Municipio, se clasifican del modo que asimismo se expresa en el Anexo.

3.- Cuando la utilización privativa o el aprovechamiento especial lleve aparejada la destrucción o deterioro del dominio público local, el(a) beneficiari@, sin perjuicio del pago de la tasa a que hubiere lugar, estará obligad@ al reintegro del coste total de los respectivos gastos de reconstrucción o reparación y al depósito previo de su importe.

Si los daños fueran irreparables, la Entidad Local será indemnizada en cuantía igual al valor de los bienes destruidos o el importe del deterioro de los dañados.

La Entidad Local no podrá condonar total ni parcialmente las indemnizaciones y reintegros a que se refiere el presente apartado.

## VII- SORTZAPENA ETA ZERGALDIA

**8. artikulua.-**

1.- Udalaren jauntza publikoaren erabilera

## VII- DEVENGO Y PERIODO IMPOSITIVO

**Artículo 8.-**

esklusiboagatik edo probetxatze bereziagatik ezartzen diren tasak kobratzeko eskubidea sortuko da, zergagaia nolakoa den arabera, erabilera esklusiboa edo probetxatze berezia eraukitzen denean, edo erabilera esklusiboa edo probetxatze berezia hasten denean, noiz ere eskatzen ahalko baita zenbateko osoa edo haren zati bat aurrez ordaintzea, edota, bestela, jardunari edo espedienteari hasiera ematen dion eskabidea aurkezten denean, noiz ere jarduna ez baita gauzatuko edo espedientea ez baita izapidetuko dagokion ordainketa egiten ez bada.

2.- Tasaren izaera materialagatik hura kobratzeko eskubideak aldizkakoa izan behar duenean, eskubide hori sortuko da dagozkion tarifetan adierazitako bitarte bakoitzaren lehenengo egunean.

Zerga-aldiak eguna, hilabetea, hiru-hila, sei-hila edo urte osoa hartuko du, dagozkion tarifen arabera. Erabilera esklusiboa edo probetxatze berezia hasten edo uzten denean, ordea, zerga-aldia zertzelada horretara egokituko da, Eranskinean ezarritakoari jarraituz.

3.- Noiz eta, subjektu pasiboarekin zer ikusirik ez duten arrazoiengatik, jauntza publikoa erabiltzeko edo probetxatzeko eskubidea ezin gauzatu baita bost egunetik gorako epean, dagokion zenbatekoa hainbanaturik itzuliko zaio.

Edozein kasutan ere, Udalak beretzat gordetzen du okupaturiko edo baimena emaniko gune jakinaren barruan jarduteko eskubidea, betiere obrak egiteko behar badu, edo egoki deritzon beste zeinahi arrazoirengatik.

1.- Las tasas por la utilización privativa o el aprovechamiento especial del dominio público local se devengarán, según la naturaleza de su hecho imponible, cuando se conceda la utilización privativa o el aprovechamiento especial, o se inicie el uso privativo o el aprovechamiento especial, pudiendo exigirse el depósito previo de su importe total o parcial, o cuando se presente la solicitud que inicie la actuación o el expediente, que no se realizará o tramitará sin que se haya efectuado el pago correspondiente.

2.- Cuando la naturaleza material de la tasa exija el devengo períodico de ésta, el mismo tendrá lugar el primer día de cada uno de los períodos señalados en las tarifas respectivas.

El período impositivo comprenderá el día, mes, trimestre, semestre o año natural según las tarifas respectivas, salvo en los supuestos de inicio o cese en la utilización privativa o el aprovechamiento especial, en cuyo caso el período impositivo se ajustará a esa circunstancia, en los términos establecidos en el Anexo.

3.- Cuando por causas no imputables al sujeto pasivo el derecho a la utilización o aprovechamiento del dominio público no se pueda ejercer por un espacio superior a cinco días naturales, procederá por prorrateo la devolución del importe correspondiente.

En todo caso, el Ayuntamiento se reserva su derecho a poder actuar dentro del espacio concreto ocupado o autorizado siempre que lo precise para la realización de obras o por cualquier otra causa que estime conveniente.

## VIII- LIKIDAZIOA ETA ORDAINKETA

**9. artikulua.-**

1.- Tokiko Erakundeak kontzeptu bakoitzaren likidazioa egingo du, eta dirutan ordaindu beharko da, Eranskinak karga bakoitzerako ezartzen dituen arau partikularrei jarraituz.

2. - Tasak kobratzeko eskubidea aldizka sortzen denean, behin haien erroldan edo matrikulan alta emateari dagokion likidazioa jakinarazitakoan, hurrengo kuotak multzoan jakinaraziko diren erreziboen bidez igorriko dira.

3. - Tasen ordainketa dagokien lizentzia jaso aurretik egingo da, autolikidazioaren bitartez, non eta tasa bakoitza aplikatzeko arauetako bestelakorik ezartzen ez den.

4. - Tasa bakoitzaren zenbatekoa sartzeko epeak, haietako bakoitza aplikatzeko arauetan seinalatuak dira, eta, haien ezean, Zergen Foru-Arau Orokorrean eta Kobrantzako Erregelamenduan ezarritakoak.

## IX- TASEN KUDEAKETA

**10. artikulua.-**

1. - Gauzak edo elementuak instalatzeko, orobat hasiera batean onetsitakoak aldatzeko, berritzeko, zabaltzeko edo murrizteko ere, beharrezkoa izango da, Udalaren lizentziaz gain, Ordenantza honetan arautako tasak pagatzea.

2. - Lizentzia eskuratzeko interesaturik daudenek, aldez aurretik, Errejistro Orokorrean eskabidea aurkeztu beharko dute, zer nolako erabilera eta probetxatzea

## VIII- LIQUIDACION E INGRESO

**Artículo 9.-**

1.- Por la Entidad Local se practicará una liquidación por cada concepto, que deberá ser ingresada en metálico conforme a las normas particulares de cada exacción contenidas en el Anexo.

2. - Cuando las tasas se devenguen periódicamente, una vez notificada la liquidación correspondiente al alta en el respectivo padrón o matrícula, las sucesivas cuotas se girarán mediante recibos de notificación colectiva.

3.- El pago de las Tasas se realizará previamente a la retirada de la correspondiente licencia en regimen de autoliquidación, salvo que en las normas de aplicación de cada Tasa se estipule lo contrario.

4.- Los plazos de ingreso de cada tasa son los señalados en sus correspondientes normas de aplicación, y en su defecto los establecidos en la Norma Foral General Tributaria y el Reglamento de Recaudación.

## IX-GESTION DE LAS TASAS

**Artículo 10.-**

1. - Para la instalación de los efectos o elementos, así como para la modificación, reforma, ampliación o reducción de los inicialmente concedidos se requiere además de licencia municipal el pago de las tasas reguladas en esta Ordenanza.

2. - Las personas interesadas en la obtención de una licencia presentará previamente en el Registro General la oportuna solicitud, con especificación del tipo de utilización o aprovechamiento a realizar; debiendo acompañar la correspondiente

gauzatuko duten zehaztuz. Horrekin batera, dagokien aitorpen-likidazioa eta ateratzen den tasaren zenbateko sartu izanaren justifikagiria aurkeztu beharko dute.

3.- Elementu bakoitzaren okupazioa konputatzeko, zabaleran beti gutxienez 2 metro esleituko dira, beti ere Eranskinean karga bakoitzarentzat datozen arau partikularrek ezarritakoaren kontra ez badoaz.

4. - Baldin eta okupatzeko baimena urte betekoa bada, epez luzatutzat joko da harik eta Alkateak iraungitzea erabakitzen duen arte edo baja emateko eskabidea aurkezten den arte.

Hala ere, lizentzia oro interes eta erabilera publikoaren baldintzapean geldituko da, halako eran non, udaleko administrazioak jauntza publikoko gunea erabili beharra badu, lizentzia besterik gabe baliogabeturik geldituko baita. Kasu horretan, kuota 9.3 artikuluan ezarritako eran murriztua geldituko da.

**11. Artikulua.-**

Behin gauzak edo elementuak erretiratu ondoren, interesatuek nahitaez aurkeztu beharko dute erabileran edo probetxatzean baja ematearen deklarazioa Udaleko Adminsitrazioan, eta, hark onartzen badu, aurkeztua izan den zerga-aldiaren hurrengotik aurrera izango du eragina, eta ordu arateko tasak aplikatuko dira.

**12. artikulua**.-

Probetxuen edo instalazioen titularitatea aldatzeko, nolanahi ere, Udaleko Adminsitrazioaren aldez aurreko baimena beharko da. Hori lortzeko, lizentziaren titularrak idatziz eskatu beharko du, aipatuaz norberaren datuak, titular berriaren bizilekua, eta Ordenantza honen ondorioetarako beharrezkoak diren datu guztiak.

declaración-liquidación y justificante de ingreso de la tasa resulteante.

3. - A fin de computar la ocupación de cada elemento, se adjudicará siempre un mínimo de 2 metros de ancho, sin perjuicio de lo que dispongan las normas particulares de cada exacción contenidas en el Anexo.

4.- En los supuestos de autorización de ocupación con carácter anual, se entenderá prorrogada mientras no se acuerde su caducidad por la Alcaldía o se presente solicitud de baja.

No obstante, toda licencia quedará condicionada al interés y uso público, de manera que si fuera precisa la utilización del espacio de dominio público por la administración municipal la licencia quedará automaticamente resuelta, en cuyo caso la cuota se verá reducida en la forma establecida en el artículo 9.3

**Artículo 11.-**

Una vez retirados los efectos o elementos l@s interesad@s están obligad@s a presentar la oportuna declaración de baja en la utilización o aprovechamiento en la Administración Municipal, la cual, en caso de conformidad, tendrá efectos a partir del período impositivo siguiente a aquel en que fue presentada, aplicándose las tasas hasta dicho momento.

**Artículo 12.-**

El cambio de titularidad de los aprovechamientos o instalaciones requerirá en todo caso la previa autorización de la Administración Municipal. Para ello el(a) titular de licencia deberá solicitarlo por escrito mencionando los datos personales, el domicilio del(a) nuev@ titular y cuantos datos sean necesarios a efectos de esta Ordenanza.

Los cambios producidos sin la

Udalaren baimen hori gabe egindako aldaketek, emandako lizentzia baliogabetzea ekarriko dute, eta, beraz, beste baimen bat eskatu beharko da.

**13. artikulua.-**

Udal-jabari publikoa okupatzea baimenduko dion lizentzia eskuratu ahal izateko ezinbesteko baldintza izango da Udal Hazienda honekiko zordun ez izatea bere baliabide lokalak osatzen dituzten kontzeptuetariko ezeinetan.

**14. Artikulua.-**

Ordenantza honetako epigrafeetan jasota ez dauden eta nolabaiteko maiztasunez gertatzen ez diren edo ezin diren udal-jabari publikoaren noizbehinkako probetxamenduetarako, Alkateak une bakoitzean eta kasu bakoitzerako aipatu probetxamenduaren kostuan oinarrituz egokitzat jotzen duen tasa finkatu ahal izango du, dagokion teknikariaren eta Kontuhartzailearen txostenak ikusi ondoren.

Hazienda Batzordeari akordio horren berri emango zaio, jakin dezan eta dagozkion eraginetarako.

**15. Artikulua**.-

1. - Tributu-arauen urratze arrunta izango dira ondoren zehazten diren kasuak, eta era honetarako zigortuko dira:

A) Nork ere, okupatzeko lizentzia izanik, lizentzia horretan mugaturiko gune publikoa okupatzen baitu horretakotz premia den autolikidazioa aurkeztu eta pagatu gabe, edota egindako pagamenduak esku ematen diona baino gune handiagoa okupatuz, dagokion tasa ordaintzera obligaturik geratzeaz gain, honela zigortua izango da:

consiguiente autorización municipal producirá la revocación de la licencia otorgada, debiéndose solicitar una nueva autorización.

**Artículo 13.-**

Será condición inexcusable para poder obtener licencia que le autorice la ocupación del dominio público municipal, no ser deudor(a) de esta Hacienda Municipal por ningún los conceptos que integran sus recursos locales.

**Artículo 14.-**

Para aquellos aprovechamientos del dominio público municipal de carácter puntual y concreto, que no se produzcan, o se puedan producir, con relativa periodicidad, y que no se encuentren recogidos en los epígrafes de esta Ordenanza, el/la Alcalde(sa) podrá determinar en cada momento y para cada caso la tasa que estime más oportuno en base al costo del citado aprovechamiento, visto el informe del(a) técnico respectiv@ y del(a) Interventor(a) de fondos.

Del citado acuerdo se dará cuenta en la Comisión de Hacienda para su conocimiento y efectos.

**Artículo 15.-**

1. - Son infraciones tributarias de carácter simple los supuestos que a continuación se detallan y serán sancionados de la siguiente manera:

A) Quien poseyendo licencia para la ocupación, ocupare el espacio público delimitado en la licencia sin haber presentado y abonado la necesaria autoliquidación, o bien ocupando un espacio superior al que da derecho el abono realizado, independientemente de quedar obligado al pago de la tasa respectiva, será sancionado de la siguiente manera:

a) Lehenbiziko aldian, bete beharrekoak bete ez izanaz ohartaraziko zaio.

b) Bigarren aldian, 30 euroko isun batekin zigortua izango da, hemen ezarritako zergazko betebeharrak bete ez dituelako.

c) Hirugarren aldian, 60 euroko isun batekin zigortua izango da, hemen ezarritako zergazko betebeharrak bete ez dituelako, eta baimena etenda geratuko da 6 hilabeteko epean.

d) Laugarren aldian, 150 euroko isun batekin zigortua izango da, hemen ezarritako zergazko betebeharrak bete ez dituelako, eta baimena etenda geratuko da urte beteko epean.

e) Bosgarren aldian eta hurrengotan, 300 euroko isun batekin zigortua izango da, hemen ezarritako zergazko betebeharrak bete ez dituelako, eta lizentzia baliogabetzea.

B) Nork ere gune publikoa okupatzen baitu horretakotz premia den autolikidazioa aurkeztu eta pagatu gabe, larriagotzen duelarik gune hori okupatzeko lizentziarik ez duelako, nahiz eskatu duen, ondoko zigor hau jasoko du:

a) Lehenbiziko aldian, 60 euro
b) Bigarren aldian, 150 euro.
c) Hirugarren aldian eta hurrengoetan, 300 euro.

C) Nork ere gune publikoa okupatzen baitu horretakotz premia den autolikidazioa aurkeztu eta pagatu gabe, larriagotzen duelarik gune hori okupatzeko lizentziarik ez duelako eta eskatu ere ez duelako, ondoko zigor hau jasoko du:

a) La primera vez será apercibido de su incumplimiento

b) La segunda vez será sancionado con 30 euros por incumplimiento de las obligaciones tributarias aquí establecidas.

c) La tercera vez será sancionado con 60 euros por incumplimiento de las obligaciones tributarias aquí establecidas, quedando suspendida la autorización por espacio de 6 meses naturales.

d) La cuarta vez será sancionado(a) con 150 euros por incumplimiento de las obligaciones tributarias aquí establecidas, quedando suspendida la autorización por espacio de 1 año.

e) La quinta vez y sucesivas será sancionado(a) con 300 euros por incumplimiento de las obligaciones tributarias aquí establecidas y la revocación de la licencia.

B) Quien ocupare espacio público sin haber presentado y abonado la necesaria autoliquidación, agravado por no contar con licencia para la ocupación de dicho espacio aunque habiéndola solicitado, será sancionado::

a) La primera vez con 60 euros.
b) La segunda con 150 euros.
c) La tercera y sucesivas veces con 300 euros.

C) Quien ocupare espacio público sin haber presentado y abonado la necesaria autoliquidación, agravado por no contar ni haber solicitado la licencia para la ocupación de dicho espacio será sancionado:

a) Lehenbiziko aldian, 150 euro.
b) Bigarren aldian, 300 euro
c) Hirugarren aldian eta hurrengoetan, 600 euro.

2. - Gainerako zerga-arauen urratzeentzat, haiek kalifikatzerakoan eta kasu bakoitzean dagozkien zigorrak ezartzerakoan, Gipuzkoako Tributuen Foru-Arau Orokorrean jasotakoa aplikatuko da.

## X- AMAIERAKO XEDAPENA

Ordenantza hau, eta bere Eranskina, bertan adierazten den egunean onartu zen behin betikoz. 1,999(e)ko urtarrilaren 1ean jarriko da indarrean, eta aldatu edo indargabetzea erabakitzen ez den artean jarraituko du indarrean.

## ERANSKINA

UDAL JABARI PUBLIKOAREN ERABILERA PRIBATIBO EDO PROBETXAMENDU BEREZIA-GATIK ORDAINDU BEHARREKO TASAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA

## I.- TARIFAK

Tarifak, ondorengo II. atalean dauden Tarifen epigrafeetako dagozkien zenbakietan ezarritako kontzeptu eta zenbatekoen arabera kalkulatuko dira. Eragin honetarako, kaleak eta, orohar, Udalerri barruko gainerantzeko leku guztiak kategoria bakar baten barruan sailkatuko dira.

## II.- PROBETXAMENDU-MOTA

a) La primera vez con 150 euros.
b) La segunda con 300 euros.
c) La tercera y sucesivas veces con 600 euros

2. - Para el resto de infracciones tributarias, su calificación y determinación de las sanciones que correspondan en cada caso, sera de aplicación lo previsto en la Norma foral General Tributaria del Territorio Histórico de Gipuzkoa

## X- DISPOSICION FINAL

La presente Ordenanza , con su Anexo, fue aprobada definitivamente en la fecha que en éste se indica, entrará en vigor el 1 de enero de 1.999 y seguirá en vigor hasta que se acuerde su modificación o derogación.

## ANEXO

ORDENANZA REGULADORA DE TASAS POR LA UTILIZACION PRIVATIVA O EL APROVE-CHAMIENTO ESPECIAL DEL DOMINIO PUBLICO LOCAL

## I. TARIFAS

Las tarifas se calcularán de acuerdo con los conceptos e importes establecidos en los correspondientes números de los epígrafes de las Tarifas contenidas en el apartado II siguiente. A estos efectos, las calles, y en general, lugares del Municipio se clasifican en una categoría única.

## II. TIPO DE APROVECHAMIENTO

## 20. Tasa: Udal-jabari publikoko ondasunetan Ibilgailuentzat aparkamendua erreserbatzea.

***Tasa 20: Reserva de aparcamiento para vehículos en bienes de dominio público municipal.***

| | | TARIFA | |
|---|---|---|---|
| **Lehen tarifa: Galtzadan tokia irankorki erreserbatzeagatik, metro linealeko edo zatiko eta seihilabeteko edo zatiko.**<br>***Tarifa primera: Por reserva permanente de espacio de calzada, por metro lineal o fracción y semestre o fracción:*** | | | |
| 1. - Jarduera ekonomikoen gaineko zerga ordaintzen duten lokaletan:<br>*En locales que tributen por el Impuesto Actividades Económicas:* | | | |
| a) | 15 enplegatu edo gutxiagokoak<br>*Con 15 o menos empleados* | 35,38 | € |
| b) | 15 enplegatu baino gehiagokoak<br>*Con más de 15 empleados* | 43,52 | € |
| 2. - Bestelako lokaletan // *En otros locales* | | | |
| a) | 5 plaza baino gutxiagokoak<br>*Con menos de 5 plazas* | 30,74 | € |
| b) | 5etik 30era plazakoak<br>*Entre 5 y 30 plazas* | 42,08 | € |
| c) | 31tik 50era plazakoak<br>*Entre 31 y 50 plazas* | 58,45 | € |
| d) | 51tik 150era plazakoak<br>*Entre 51 y 150 plazas* | 75,91 | € |
| e) | 150 plaza baino gehiagokoak<br>*Más de 150 Plazas* | 91,05 | € |
| **Bigarren tarifa: Zamalanetarako galtzada erreserbatzea, metro linealeko edo zatiko eta seihilabeteko edo zatiko.**<br>***Tarifa segunda: Reservas de calzada para carga y descarga, por metro lineal o fracción y semestre o fracción:*** | | | |
| 1. - Iraunkorki erreserbatzea / / *Reservas permanentes* | | | |
| a) | 6 ordura arte<br>*Hasta 6 horas* | 26,73 | € |
| b) | 6 ordu baino gehiago eta 14 baino gutxiago<br>*Más de 6 horas y menos de 14* | 32,19 | € |
| 2. - Gehienez seihilabeteko aldi baterako erreserbatzea :<br>*Reserva temporal hasta un plazo máximo de seis meses* | | | |
| a) | Egunean 6 ordu arte<br>*Hasta 6 horas diarias* | 18,95 | € |
| b) | Egunean 6 ordu baino gehiago eta 14 baino gutxiago<br>*Más de 6 horas diarias y menos de 14* | 28,63 | € |
| **Hirugarren tarifa: Aldizkako beharrek sortutako hainbat erabileratarako guneak erreserbatzea, metro linealeko edo zatiko eta orduko.**<br>***Tarifa tercera: Reserva de espacios para usos diversos provocados por necesidades ocasionales, por cada metro lineal o fracción y hora*** | | 5,82 | € |

## TARIFAK APLIKATZEKO ARAUAK

1.- Galtzadaren Erreserba zintarria jaitsita edo kenduta dagoeneko metro linealen arabera arabera zehaztuko da espaloien sestran aldakuntzaren bat dagoen kasutan. Espaloiko zintarria jaitsirik ez balego eta espaloia kendu gabe, neurria guztira kasu bakoitzeko lokal edo orubera sartzeko hutsunearen luzera erabilgarria izango da.

2.- Aparkalekuen erreserbak instalatzeak, kontserbatzeak, berritzeak eta kentzeak hala nola seinalizazioa jartzeak sotarazten dituen gastuak, eskatzaileen kontu eta kargurakoak izango dira.

3.- Tasen ordainketa, dagokien lizentzia eraukitakoan egingo da.

4.- Kuota sei-hilka hainbanatuko da alta edo baja berria gertzen denean, nahiz eta urteka ordainaraziko den.

Prezioaren urteko kuotak ordaintzeko epea urriaren 1etik azaroaren 15era edo hurrengo lanegunera bitartean izango da.

## NORMAS DE APLICACION DE LAS TARIFAS

1.- La reserva de calzada se determinará por los metros lineales de bordillo rebajado o suprimido en los casos en que exista una modificación de las rasantes de las aceras. Si el bordillo de la acera no estuviere rebajado, ni suprimida la misma, la medida será, en toda su extensión, la de la longitud útil del hueco de entrada al local o solar de que en cada caso se trate.

2.- Los gastos que originen la instalación conservación, reforma, y retirada de las reservas de aparcamientos, así como la señalización de los mismos, será de cuenta y cargo de los solicitantes.

3.- El pago de las Tasas se realizará una vez concedida la correspondiente licencia.

4.- La cuota se prorrateará por semestres en los casos de nueva alta o baja, si bien será exigida anualmente.

El plazo de pago de las cuotas anuales de la tasa será del 1 de octubre al 15 de noviembre o inmediato hábil posterior.

## **21. Tasa: Ferietako eta herriko jaietako postuak, kaleko industriak eta ibiltariak.**
## ***Tasa 21: Puestos en ferias y festejos populares, Industrias callejeras y ambulantes.***

| | | TARIFA | |
|---|---|---|---|
| **Lehen tarifa.- Ferietako eta festetako postuak: Lurra okupatzeagatik, m²-ko edo zatiko eta eguneko**<br>***Tarifa primera. - Puestos en Ferias y Festejos : Por ocupación de terrenos, por cada m² o fracción y día*** | | | |
| 1.- | Hurrengo epigrafeetan zehaztu gabeak<br>*No especificados en los epigrafes posteriores* | 7,31 | € |
| 2.- | Salmenta lasterrak edo antzekoak eta, oro har, era guztietako aparatu mugimenduzkoak.<br>V*entas rápidas o similares y en general cualquier clase de aparatos de movimiento.* | 1,23 | € |

| | | *TARIFA* | |
|---|---|---|---|
| 3.- | Ogitartekoak, edariak, jostailuak, zeramika, pitxiak, izozkiak eta abar saltzeko.<br>*Para la venta de bocadillos, bebidas, juguetes, cerámicas bisutería, helados, etc.* | 11,90 | € |
| 4.- | Loreak, globoak, etab. besoan saltzeko.<br>*Para la venta al brazo de flores, globos etc.* | 4,84 | € |
| 5.- | Txurrotegia // *Churrería* | 1,13 | € |
| 6.- | 150 m² arteko ikuskizunak // *Espectáculos hasta 150 m²* | 0,14 | € |
| 7.- | 150 m² baino gehiagoko ikuskizunak // *Espectáculos de más de 150 m²* | 0,11 | € |
| **Bigarren tarifa.- Lurra okupatzeagatik, m²-ko edo zatiko eta eguneko**<br>***Tarifa Segunda. - Por ocupación de terrenos, por cada m² o fracción y día*** | | | |
| 1.- | Hurrengo epigrafeetan zehaztu gabeak<br>*No especificados en los epigrafes posteriores* | 3,05 | € |
| 2.- | Erribera kaleko azoka / / *Mercado de Erribera kalea* | 2,80 | € |
| **Hirugarren tarifa.- Lur-sailak okupatzeagatik, m²-ko edo zatiko eta hilabeteko.**<br>***Tarifa Tercera. - Por ocupación de terrenos, por cada m² o fracción y mes*** | | | |
| 1.- | Hurrengo epigrafeetan zehaztu gabeak.<br>*No especificados en los epigrafes posteriores* | 21,40 | € |
| 2.- | Xede politiko, komertzial edo antzekoa duten iragarkiak:<br>*Anuncios con fines políticos, comerciales o análogos:* | | |
| | 1 Posteen gainean, publizitateko bakulu bakoitzeko.<br>*Sobre postes, por cada báculo publicitario.* | 26,75 | € |
| | 2 Bestelako elementuen gainean<br>*Sobre otros elementos* | 13,40 | € |
| 3.- | Kaleko industriak, ibiltariak eta ferietakoak<br>Industrias Callejeras, ambulantes y de Feria | 21,65 | € |
| **Laugarren tarifa.- Metro karratuko edo zatiko eta hiruhilabeteko edo zatiko**<br>***Tarifa Cuarta. - Por metro cuadrado o fracción y trimestre o fracción*** | | | |
| 1.- | Erribera kaleko azoka / / *Mercado de Erribera kalea* | | |
| | 1 Oihalak, azkazal-esmalteak eta hariak<br>*Retales, esmaltes de uñas e hilos* | 14,20 | € |
| | 2 Txerrikiak<br>*Productos de charcutería* | 27,85 | € |
| | 3 Janariak, lorategiko produktuak eta pastelak<br>*Alimentación, Productos jardinería y pastelería* | 20,00 | € |
| | 4 Jantziak, ehunkiak, sukaldeko tresnak, burdinkiak<br>*Vestuario, Tejidos, Menaje de cocina, ferretería* | 22,00 | € |
| | 5 Edari botilatuak eta likoreak<br>*Bebidas embotelladas y licores* | 31,05 | € |
| | 6 Bestelakoak<br>*Otros* | 26,50 | € |

| | | | TARIFA | |
|---|---|---|---|---|
| 2.- | Okendoko azoka / *Mercado de Okendo* | | 20,00 | € |
| 3.- | Zumaburuko azoka / *Mercado de Zumaburu* | | | |
| | | Baserriko barazkiak<br>*Productos hortícolas de caserío* | 39,10 | € |
| **Bosgarren tarifa.- Metro karratuko edo zatiko eta urte naturaleko edo zatiko**<br>***Tarifa Quinta. - Por metro cuadrado o fracción y año natural o fracción*** | | | | |
| 1.- | Hurrengo epigrafeetan zehaztu gabeak<br>*No especificados en los epigrafes posteriores* | | 139,25 | € |
| 2.- | Xede politiko, komertzial edo antzekoa duten iragarkiak:<br>*Anuncios con fines políticos, comerciales o análogos:* | | | |
| | 1 | Posteen gainean, publizitateko bakulu bakoitzeko.<br>Sobre postes, por cada báculo publicitario. | 150,00 | € |
| | 2 | Bestelako elementuen gainean<br>*Sobre otros elementos* | 75,00 | € |
| 3.- | Egunkariak, loteriak, gozokiak eta abar saltzeko kioskoak<br>*Kioscos para la venta de periódicos, loterias, golosinas, etc...* | | 144,35 | € |

## TARIFAK APLIKATZEKO ARAUAK

1. - Tasa hau ordaintzetik salbuetsirik dago jauntza publikoa hondakin-ontziekin okupatzea obretan sortutako hondakinak biltzeko.

2. - Probetxatzeak urtekoak izan daitezke berezko urte osorako baimena jasotzen dutenean, eta aldi batekoak baimendutako epea berezko urtearen zati bat denean. Adminsitrazioaren baimenik gabe egindako probetxatze guztiak hilabete osokotzat hartuko dira.

3. - Kokaguneak, instalazioak, saltokiak etab. jendaurreko enkantera ateratzen ahalko dira Feriak egin aurretik, eta lizatazio-tasa, oinarritzat balioko duen

## NORMAS DE APLICACION DE LAS TARIFAS

1. - Esta exenta del pago de esta tasa la ocupación del dominio público con containers dedicados a recoger los escombros producidos en obras.

2. - Los aprovechamientos pueden ser anuales, cuando se autoricen para todo el año natural, y temporales, cuando el período autorizado comprende parte de un año natural. Todos los aprovechamientos realizados sin autorización administrativa se consideran mensuales.

3. - Los emplazamientos, instalaciones, puestos, etc. podrán sacarse a licitación pública antes de la celebración de las Ferias, y el tipo de licitación, en concepto de tasa mínima

tasa minimorako, kasu bakoitzean zehazten dena izango da.

4. - Salmentagaiak aurreko artikuluan dauden epigrafeetariko bat baino gehiagotan sar ahal baldin badaitezke, tasarik handiena seinalatua daukanaren arabaera ordainduko da.

5. - Asteroko merkatuan saltoki bat okupatzeagatik ordaindu behar den Udal-Tasa hiruhilabeteka sortzen da, ordainketa ondoko epeotan, edo hurrengo lanegunean, egikaritu beharko delarik:

que servirá de base, será el que se determine en cada caso.

4. - Cuando los productos a la venta, puedan incluirse en varios epígrafes de los contenidos en el artículo anterior, se tributará con arreglo a aquel que tenga señalada la tarifa superior.

5. - La Tasa municipal resultante por la ocupación de un puesto en el mercado semanal se devenga por trimestres, debiéndose ser efectivo en los siguientes plazos, o inmediato hábil posterior:

| | |
|---|---|
| 1. Hiruhilabetea borondatezko epea<br>*1º Trimestre período voluntario* | Urtarrillaren 1etik 25era<br>*Desde el 01 al 25 de Enero* |
| 2. Hiruhilabetea borondatezko epea<br>*2º Trimestre período voluntario* | Martxoaren 1etik 15era<br>*Desde el 01 al 15 de Marzo* |
| 3. Hiruhilabetea borondatezko epea:<br>*3º Trimestre período voluntario* | Ekainaren 1etik 15era<br>*Desde el 01 al 15 de Junio* |
| 4. Hiruhilabetea borondatezko epea<br>*4º Trimestre período voluntario* | Irailaren 1etik 15era<br>*Desde el 01 al 15 de Setiembre* |

**22. Tasa. - TRAKZIO MEKANIKODUN IBILGAILUAK PARKING PUBLIKOETAN APARKATZEAGATIKO TASA**
***Tasa 22. - TASA POR EL ESTACIONAMIENTO DE VEHÍCULOS DE TRACCIÓN MECÁNICA EN PARKING PUBLICO.***

Zerga-kuota ibilgailua udal parkinetan aparkatuta egoten den denboraren arabera zehaztuko da, ondoko tarifei jarraikiz:

La cuota tributaria se determinará en función del tiempo que el vehículo permanezca estacionado dentro de los parkins municipales, de acuerdo con las siguientes Tarifas:

| Denbora (minututan) TIEMPO (minutos) | Tarifa |
|---|---|
| * 0-60 min | 0,010 €/min |
| * 61-180 min | 0,020 €/min |
| * 181-600 min | 0,024 €/min |
| * Eguneko gehiengoa *Maximo diario* | 14,00 € |
| * Tiketa galtzea *Perdida de ticket* | 14,00 € |

**APLIKAZIO ARAUAK**

**1.- Zergagaia**

Trakzio mekanikodun ibilgailuak Udalak parking publikoetan aparkatzen direnean egiten den udalaren herri jabetzaren aprobetxamendu berezia da tasa honen zergagaia.

**2.- Sortzapena**

Tasak ordainduko dira udal parking publikoetan aparkaleku gisa mugaturiko tokietan estazionatzerakoan.

24 ordu pasa ondoren, estazionamendua “0" minututik aurrera aplikatuko da berriro

**NORMAS DE APLICACION**

**1.- Hecho imponible.**

Constituye el hecho imponible de esta tasa, el aprovechamiento especial del dominio público municipal que se produce cuando se estacionan vehículos de tracción mecánica en los parkings públicos municipales.

**2.- Devengo.**

Las tasas se devengan cuando se efectúa el estacionamiento en los parking públicos municipales delimitados a estos efectos.

A partir de las 24 horas de estacionamiento se volverá a devengar la tasa desde minuto ”0"

tasa.

**3.- Zergaldia**

Zergaldia guztiz bat dator estazionaldiaz.

**4.- Subjektu pasiboa**

Subjektu pasiboak dira Udal parking publikoetan aparkatuta dauden ibilgailuen gidariak.

**5.- Noiz eta nola ordaindu**

Tasa ordaintzen da ordainketa egiaztatzen duten txartelak ematen dituzten makinetan.

**3.- Período impositivo.**

El período impositivo coincide con el tiempo del estacionamiento realizado.

**4.- Sujeto pasivo.**

Son sujetos pasivos de las tasas los conductores de los vehículos estacionados en los parkings públicos municipales.

**5.- Forma de pago.**

La tasa se abona en las máquinas expendedoras de los billetes acreditativos del pago realizado.

**23. Tasa:Lurpearen erabilpen pribatiboa edo probetxamendu berezia, mahai eta aulkiekin.**

***Tasa 23: Utilización privativa o aprovechamiento especial del suelo con mesas y sillas.***

| | | TARIFA |
|---|---|---|
| 1. - | Egutegiko 3. hiruhilabeteagatik edo zatiagatik (uztaila / iraila) eta metro karratuko edo zatiko.<br>*Por el 3º trimestre natural o fracción (Julio-Setiembre) y por metro cuadrado o fracción* | 28,45 € |
| 2. - | Urtearen gainerakoagatik, metro karratuko edo zatiko eta egutegiko hiruhilabeteko edo zatiko.<br>*Resto del año, por metro cuadrado o fracción y trimestre natural o fracción* | 9,95 € |
| 3. - | Okupazioak egitura estali batez itxitako instalazioren bat eskatuko balu; metro karratuko edo zatiko eta egutegiko urteko edo zatiko.<br>*Cuando la ocupación suponga la instalación de un cierre con estructura cubierta; por metro cuadrado o fracción y año natural o fracción* | 63,19 € |

**APLIKAZIO-ARAUAK**

1. - Mahaiak eta aulkiak ipintzeko, aldez aurretik horretarako baimena izan behar da, udalak emandako lizentziaren bidez, non zehaztuko baitira gehienez ere okupa dezakeen sailaren mugak.

2. - Behin lizentzia hori eskuratutakoan, haren titularrak, okupatze berezi eta zehatz bat eta denbora jakin baterakoa egin nahi duenen, udaleko zerga-bilketako bulegoan adierazpen-kitapen bat aurkeztu beharko du, zenbat denboran, zenbat metro eta zenbat mahai erabili nahi dituen adieraziz, eta, beti ere, guztira baimendutako mugak errespetatuz.

Mahai bakoitzak okupatzen dituen metro koadroak konputatze aldera, gutxienez, 3 m²-ko eremua dutela joko da.

3. - Zorua mahai eta aulkiekin

**NORMAS DE APLICACION**

1. - Para la instalación de las mesas y de las sillas se requiere autorización previa a través de la correspondiente licencia municipal, donde se determinará los límites de ocupación máximos establecidos.

2. - Una vez obtenida dicha licencia, el(a) titular de la misma en el momento que desee realizar una ocupación específica y concreta y por un periodo de tiempo determinado, deberá presentar en la Recaudación municipal declaración-liquidación del periodo de tiempo, metros y numero de mesas que desee emplear, respetando siempre los limites globales autorizados.

A fin de computar los m² de ocupación por mesa, se considerará que tienen una dimensión mínima de 3 m².

3. - La Tasa municipal resultante por la

okupatzeagatik ateratzen den udaleko tasa hiru hilabetero sortuko da, eta aurreko atalean aipatzen den adierazpen-kitapena egitearekin batera ordainduko da.

ocupación con mesas y sillas se devenga por trimestres, y se hará efectivo simultáneamente a la declaración liquidación a la que se refiere el apartado anterior.

Ordaintze hori ezinbesteko baldintza da nahi diren mahaiak eta aulkiak ipini ahal izteko, eta baldintza hori ez betetzeak berekin ekarriko du Ordenantza honetan seinalatzen diren zigorrak aplikatzea, eta are emandako lizentzia baliogabetzea bera ere.

Dicho abono es requisito indispensable para poder colocar las mesas y sillas que se deseen y su incumplimiento conllevará la aplicación de las sanciones que se fijan en esta Ordenanza, que incluso podrán conllevar la revocación de la licencia establecida.

**Tasa 24: Udal-bide publikoen lurzoru, lurpe edo hegalpearen erabilpen pribatiboa edo probetxamendu berezia, hornidura-zerbitzuen enpresa ustiatzaileen alde.**

**24. Tasa: Utilización privativa o aprovechamiento especial del suelo, subsuelo o vuelo de las vías públicas municipales, en favor de empresas explotadoras de servicios de suministro.**

Auzateria osoari edo horren zati garrantzitsu bati dagozkion hornidura-zerbitzuak ustiatzen dituzten enpresen aldeko bide publikoen lurzoru, lurrazpi edo hegalpearen erabilera pribatibo edo probetxamendu bereziengatiko prezioa aipatu enpresek udal-barrutian urtean eskuratzen duten fakturaziotik datozen sarrera gordinen %1,5ekoa izango da.

La tasa por las utilizaciones privativas o aprovechamientos especiales constituidos en el suelo, subsuelo o vuelo de las vías públicas municipales, en favor de empresas explotadoras de servicios de suministro que afecten a la generalidad o a una parte importante del vecindario será el 1,5% de los ingresos brutos procedentes de la facturación que obtengan anualmente en el término municipal dichas empresas.

Telekomunikazioetako operadoreei legokiekeen tasa honen zenbatekoa, azaroaren 10(e)ko 5/1998 Foru-Arauaren 3. artikuluak aipatzen duen urteko aldizkotasunezko konpentsazio metalikoan sartuta dago. (Uztailaren 5eko 11/1989 Foru-Arauaren Bigarren Xedapen Gehigarria).

La cuantía de esta tasa que pudiera corresponder a los operadores de telecomunicaciones, está englobada en la compensación en metálico de periodicidad anual a que se refiere el artículo 3º de la Norma Foral 5/1998, de 10 de noviembre (Disposición Adicional Segunda de la Norma Foral 11/1989 de 5 de Julio).

**APLIKAZIO-ARAUAK**

**NORMAS DE APLICACION**

1.- Tasa honetan jasotakoaren ondorio horietarako, honakoak hartuko dira hornidura-zerbitzuen enpresa ustiatzailetzat:

- Argindarra, ura edo gasa hornitzen duten enpresak.
- Jendearentzako telekomunikazio zerbitzuak ematen dituzten enpresak, baldin eta udal bide publikoen lurzoruan, zorupean edo hegalduran erabilera pribatiboz edo aprobetxamendu bereziz instalatutako telekomunikazioko sare publikoak, osorik edo zati batean, erabiltzen badira.
- Hornidura-zerbitzuak ematen dituen beste edozein enpresa, baldin eta horiek emateko udal lurzorua, hegaldura edo zorupea hartzen duten hodiak, kableak eta gainerako instalazioak erabiltzen badituzte.

  Horretarako, zerbitzu horien enpresa ustiatzaileen artean zerbitzu horiek banatu eta merkaturatzen dituztenak sartuko dira.

2.- Urtealdi bakoitzaren lehen lau hilabeteetan enpresek udal-barrutiaren barruan egindako hornidurengatik lortutako sarreren aitorpena egingo dute, aurreko urtean lortutako sarrera gordinak zehazki azalduz.

1.- A los efectos de lo establecido en esta tasa, tendrán la consideración de empresas explotadoras de servicios de suministro:

- Las empresas suministradoras de energía eléctrica, agua o gas.
- Las empresas que presten servicios de telecomunicaciones disponibles al público mediante la utilización, total o parcial, de redes públicas de telecomunicaciones instaladas con utilización privativa o aprovechamiento especial del suelo, subsuelo o vuelo de las vías públicas municipales, con independencia de la titularidad de las redes o instalaciones.
- Cualesquiera otras empresas de servicios de suministros que utilicen para la prestación de los mismos tuberías, cables y demás instalaciones que ocupen el suelo, vuelo o subsuelo municipales.

  A estos efectos se incluirán entre las empresas explotadoras de servicios las empresas distribuidoras y comercializadoras de los mismos.

2.- Las empresas presentarán dentro del mes siguiente al término de cada trimestre natural, declaración-liquidación por los ingresos obtenidos por suministros efectuados dentro del término municipal con detalle de los ingresos brutos obtenidos en el trimestre inmediatamente anterior.

3.- La Administración Municipal procederá a la determinación o cobro

3.- Udal-Administrazioak tasa honen zehazketa edo behin-behineko kobraketa egingo du, hori egin ondoren 4 urtean ordaindu beharreko zenbatekoz zuzendu ahal izango delarik eta, epe hori iraganik, kasua bada, behin-betikotzat joko da.

provisional de esta tasa público, pudiendo rectificar la cantidad a satisfacer dentro del plazo de 4 años de haberse practicado la misma, transcurrido el cual se entenderá, en su caso, elevada a definitiva.

Ordenantza hau, zeinen parte osagai bait dira Eranskin honetan jasotako portzentaien koadroa, tarifa eta aplikatzeko arauak, 1.998ko Urriaren 1ean izan zen behin-betikoz onetsia, 1,999(e)ko urtarrilaren 1etik aurrera sartuko da indarrean eta bere azken aldaketa 2007e)ko urriaren 23(e)an onartu zen, 2008(e)ko urtarrilaren 1ean jarriko da indarrean eta horrela segituko du aldatzea edo deuseztatzea erabakitzen den arte.

La presente Ordenanza, de la que son parte integrante el cuadro de porcentajes, la tarifa y la normas de aplicación contenidos en este Anexo, quedó aprobada definitivamente el día 1 de Octubre de 1.998 , entrará en vigor el 1 de enero de 1.999 y su última modificación se aprobó el 23 de octubre de 2007, entrará en vigor el 1 de enero del 2008 y así seguirá hasta que se acuerde su modificación o derogación.

KONTUHARTZAILEAK ALKATEAK IDAZKARIAK